

64/2008 DEKRETUA, EUSKARAREN EZAGUTZA
EGIAZTATZEN DUTEN TITULU ETA ZIURTAGIRIEN ARTEKO
BALIOKIDETZAK FINKATU ETA HIZKUNTZEN EUROPAKO
ERREFERENTZI MARKO BATERATURA EGOKITZEKOA.
DEKRETUAN EZARRITAKO BALIOKIDETZEI BURUZKO
AZALPENAK

64/2008 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzei buruzkoa da. Hona hemen dekretu horri buruzko azalpenak:

1. Dekretuak honako ziurtagiriak baliokidetzen ditu: orain IVAPek, Osakidetzak, HABEK, Ertzaintzak ematen dituztenak, eta EGA. Beraz, egiaztapen horiek dekretua indarrean sartu zenetik baliokidetu ahal dira, 2008ko apirilaren 16tik aurrera.

2. Dekretua indarrean sartu aurreko ziurtagiriei dagokien baliozkotasuna aitortzen zaie.

3. IVAPek eta Osakidetzak egiaztatutako 1HEk ez du iraungitze-datarik, eta hori 2008ko apirilaren 16an indarrean zeuden 1HEko ziurtagiriei aplikatzen zaie, baina aipatutako datan iraungita zeuden 1HEko ziurtagiriek ez dute baliorik.

4. Dekretuak ez ditu arautzen irakaskuntzako langileen 1HEko, 2HEko eta HLEA ziurtagirien baliokidetzak, ezta hizkuntza eskola ofizialek emandako ziurtagirien baliokidetzak ere, nahiz eta aurreikusten duen sei hilabeteko epean Dekretua aldatu behar dela ziurtagiri horiek ere sartzeko.

5. Hala ere, irakaskuntzako langileen 1HEko, 2HEko eta HLEA ziurtagiriak eta hizkuntza eskola ofizialetako 4. mailako eta Gaitasuneko (5. maila) tituluak 86/1997 Dekretuak eta 66/2005 Dekretuak arautzen dituztenez, ulertzen da baliokidetza horiek indarrean daudela. Izan ere, horien arauketa ez dago 64/2008 Dekretuan araututakoaren aurka, aipatutako aldaketek baliokidetza berriak ezarri arte.

Hona hemen, taula honetan, orain indarrean dauden
baliokidetzak:

MAILA*	IVAP OSAK	HABE	ERTZAINNTZA	HIZKUNTZA ESK. OFIZ.	HEZKUNTZA	
A1						
A2						
B1						
	1HE	1 Maila				
B2	2HE	2. Maila	1HE	4. Maila	1HE	HLEA
C1	3HE	3. Maila	2HE	5. Maila Goi- zikloa (gaitasuna)	2HE	EGA
C2	4HE	4. Maila				

* 64/2008 Dekretuak ezarritako maila berriak, hizkuntzen egiaztapeneko
Europako markoaren arabera

2006ko EPEko hautaketa-prozesuei dagokienez, honako
hau adierazi behar da:

1. Deialdiko oinarri orokorretan aurreikusten diren euskara-ezagutzaren ziurtagirien baliokidetzek indarrean jarraitzen dute eta bere ondorio guztiak izango dituzte hautaketa-prozesuetan.
2. Kultura Sailak (HABE) emandako ziurtagiriak destinoa aukeratzeko epean zehar aurkeztu ahal dira, euskara-ezagutza derrigorrezkoa (eskakizuna) den plazetan kontuan hartzeko.
3. Destinoak ondorengo fasean esleituz gero, txanda libreko izangaiei destinoa aukeratzeko eman zitzaien epea amaitu aurretik lortutako euskara-ezagutzaren ziurtagiriak bakarrik hartu ahalko dira kontuan, betiere kategoria bakoitzean hasiera batean destinoa esleitu bazitzaien.